

BIHOTZ EHORTZIA BERPIZTU ZENEKOA *Karlos del Olmo*

Ehortzi Ezazue Ene Bihotza *Wounded Kneen*

Egilea: Dee Brown

Itzultzailea: Joxe Luis Aramendi

Txalaparta

Jatorrizko izenburua: *Bury my heart at Wounded Knee*

BIZIALDIA DUT EGUZKI DANTZA // Isiltasuna, diotenez, konplizitatearen ahotsa da. / Baina ez dago isiltzerik. / Isiltasunak oihu dagi. / Isiltasuna mezua da, / ezer ez egitea ekintza den legetxe. / Utziozu zeure izateari dindatzen eta burrunbatzen / berba eta egitandia bakoitzean. / Hortaz, bihur zaitez benetan zaren horixe. / Ez duzu zeure izaera edo / zeure erantzukizuna saihesterik. // Zure ekintza zeu da. / Zeu zara zure emaria. / Zeu bihurtzen zara zure mezu. // Zeu zara mezua. // *Zaldi Zororen* Espirituaren izenean, / Leonard Peltier.

1976.etik Leonard Peltier FBIko lagun bi hil izanagatik preso da: bizialdi osoko bi zigor bete behar ditu Texaseko segurtasun goreneko presondegi batean. Oglaga tribuko indiar horren aurkako frogarriak oso ahulak omen dira, antza, indiar eskubideen defentsariaren aurkako konspirazio bat izan da tartean, Nazioarteko Amnistiak berak kontzientzi presotzat jotzen du, baina Estatu Batuetan mota horretako presorik ez omen dagoenez gero, agintarientzat preso arrunta da.

Berbera jaio aurretik ere idazten hasita zegoen Peltierren historia, zehazki, 1890. urtean: estatubatuar soldaduek zio eta abisu barik ehunka gizon, emakume eta ume Hego Dakotako Wounded Knee (Belaun Zauritua) aldean hil zituzten urtean. Delitua: siouxarrak izatea.

Triskantzaren gomutak egun ere estatubatuarrei bihotza erretzen die Stephen Benet-en *Ehortzi Ezazue Ene Bihotza Wounded Kneen* poemari eta Dee Brownen 1970.eko eleberri izenkideari esker. Bigarrenaren euskarazko bertsio eskerga eta preziosu honek genozidiorik lotsagarrienak ia desagerrarazitako herri sail baten albiste ematen du, poesia, eleberria eta historiako eskuliburua bateratuta. Joxe Luis Aramendi, Ostiela eta Txalaparta bitartekari direla. Liburu mardula, baina, hargatik, hasi eta buka leitu beharrekoa. Berba guztiak gutxi dira gizaki bakarraren asasinatua deitoratzeko. Are gutxiago milaka lagun hiltzen dituztenean.

Genozidioa ez ezik, Peltierren drama ere ulertzeko giltza zaigu liburua. Indiarrek estatubatuar armadako kide modura hiru gerratan —Munduko II.ean, Korean, Vietnamen— beste herritarren maila berean parte hartu arren, ez zuten, ordainez, eskubide politiko gehiago lortu. Zuriak indiarren eta beren ondasunen tutore izaten zirauten. Esaterako, Peltierren tribuaren lurretan iparramerikarren ikatz eta uranio meatokirik garrantzitsuenak daude.

1960. urtetik aurrera natiboen eskubideen aldeko mugimendua indarra hartzen hasi zen. 1973. urtean hainbat tributako ordezkariak Wounded Kneen hirurogeita hamaika egunean protesta ekitaldian elkartu zirenean, Peltier hantxe izan zen. Komunikabideei esker, hildakorik ez zen gertatu, poliziek inguraturik egon arren. Handik bi urtera, FBIk azpia guttiz janda zion Amerikar Indiarren Erakundeari, buruzagi guztiak fitxaturik eta kontrolpean zeuden.

Peltierren patua 1975. urtean itzulerarik gabeko bidetik abiarazi zuten. Estatu Batuetako gizalderik txiroena omen zen Pine Ridge komunitateko jaietan, polizia federalek

kanpalekua inguratu eta, bat-batean, tiroka ekin zioten. Bi agente eta indiar erakundeko gazte bat hil ziren. Peltier eta beste lau buruzagi agenteak hil izanagatik atxilotu zituzten. Inor ez zuten atxilotu Joseph Stuntz ekintzailea akabatuagatik. 1977.ean zuriak osaturiko epaimahaiak errudun jo zuen Leonard Peltier. Gerora frogarri batzuek funtsik ez zutela egiaztatu arren, juezek ez dute bestelako auzirik egin. 1973. eta 1976. urteen artean argitu gabeko asasinatu, suizidio eta istripu susmagarrietan 342 indiar buruzagi zendu ziren.

Gaur, Peltierrek idazkiak eta pinturak sortzen ditu etengabe bere ziegatik. Berberak dioenez, Wounded Kneen jazotakoaren ondorioa, txikizio hura sortu zuen politikaren emaitza besterik ez da bere egoera.

Artean, hainbat herri txikik antzeko egoerak jasan behar izaten dituzte, potentzia hegemonikoen mailan ez daudelako. Estatubatuar askorentzat indiar on bakarra hilik datzana da. Munduan ere uste zabaldua da etsairik onena hilda datzana dela, lupean gorrotoa baino ontzen ez den arren. Bihotz ehortziak, halere, gertu daude, egun berriaren argia noiz helduko zain.